

GIZARTE LANGINTZA

...pertsonekin lan egitea eta eurekin harreman zuzena izatea gustuko baduzu, gizarte langintzak **gaitu egiten zaitu pertsonen euren arazoak edo/eta beharrian sozialak gainditzen laguntzen... laguntza profesionala eskainiz.**

NORI ZUZENDUA?

Biztanlego osoari zuzentzen da, arazo edo behar sozialen bat pairatzen duen edozein pertsonari eta zehazki behar bereziak dituzten pertsona eta kolektiboak.

<i>Biztanleri Sektoreak</i>	<i>Gizarte Beharrak Eta Arazoak</i>
• Familia, haurrak eta gazteak • Adineko pertsonak • Gizarteak baztertuak izateko arriskuan dauden edo jadanik baztertuta dauden pertsonak • Gaixotasun kronikoak eta/edo ezgaitasunen bat (fisikoa, psikikoa eta/edo sentzoriala) dituzten pertsonak • Etorkinak • Etnia taldeak • Mendekotasunen bat jasan edo bizi duten pertsonak • Emakumeen aurkako indarkeria jasaten dutenak • Espetxeratuak	• Baliabide ekonomikoaren gabezia • Langabezia • Etxebizitza eza • Famili disfuntzioa • Gizarte bazterkeria • Mendekotasunak • Ezgaitasunak • Toxikomaniak • Mendekotasunak • Prostituzioa • Delinkuentzia • Tratu txarrak • Eskaletasuna • Bereizkeria: adina, sexua, arraza, etab..

NON EGITEN DU LAN?

Gizarte langilea bere kontura zein beste baten kontura aritu ahal da, **zerbitzu publiko zein pribatutan** eta **arloan ezberdinetan**, ez soilik Gizarte Ongizatean, biztanlego osoari zuzenduriko **zerbitzu orokorretan edo gizarte zerbitzu espezializatuak**. Esaterako:

- **Gizarte ongizatearen** arloa edo Gizarte Zerbitzuak.
 - Oinarrizko gizarte zerbitzuak, larrialdietarako gizarte zerbitzuak, etxerik etxeko zerbitzuak
 - Gizarte zerbitzu espezializatuak:
 - Populazioaren sektoreak: nagusiak, emakumeak, haurrak eta familia.
 - Problematikaren arabera: pertsona gutxiak, inmigranteak eta errefuxiatuak, etxerik gabeko pertsonak.
- **Beste babes sistema batzuk:** Osasuna: lehenengo arreta, ospitaleak, buru-osasuna, drogamenpekotasunak; Justizia: epaitegiak, presondegiak; Hezkuntza; Enplegua; Etxebizitza, etab...
- **Esku-hartzerako eremu berriak:** famili eta komunitate artekaritza, berdintasuna, garapenerako lankidetzak, counseling-a, gizarte-peritazioa,...

ZER EGITEN DU?

Beharrian egoerei aurre egitea, eta ahal bada prebenitzea, da gure lanaren funtsa, baina horrekin batera, pertsona bera sustatzea eta gaitzea egoera horiexei aurre egin ahal izateko.

Gizarte langintzako profesionalak **esku-hartze zuzena egiten du pertsonarekin**:

- **Pertsonaren egoera aztertzen du, ez bakarrik arlo batean, baizik eta bere osotasunean.** Horrek beste lanbideetatik bereizten gaitu. Gizarte hezkuntzako profesionala, adibidez, arlo batean bakarrik zentratzen da, gizarte heziketan, alegia. Gizarte langileak, aldiz, arazoan ulermen osoa eskuratu nahi du, euren testuinguran kokaturik.
- **Informatu, bideratu eta aholkatu** egiten die pertsonari euren eskubideez eta gizarte baliabideez.
- **Baloratu egiten du**, interesatuarekin batera, zein izan daitekeen erantzunik egokiena beronen beharrazane.
- **Dauden beharrazanei erantzun erabatekoa eman nahi die**, eta horretarako, kontuan hartzen ditu arazoaren alderdi desberdinak eta esku-hartze mailak (pertsona, familia, taldea, etab.), eta alternatibak eskaintzen ditu.
- **Esku hartzen du arazoari erantzuteko**, baina pertsonaren autonomia eta gaitasunak garatzen ahaleginduz
- Esku hartzean zer beharrian izan dezake?:
 - o **Gizarte baliabideak**, eta kasu honetan laguntza edo gizarte zerbitzuren bat kudeatuko du
 - o **Beste profesionalen esku-hartzea**, gizarte langilearekin batera arloren batean esku hartu dezaten batera
- **Pertsonarekin batera dago** prozesu osoan.

Horrez gain, gure lanean funtsezkoa da **familiarekin, taldearekin eta komunitatearekin** egiten den **esku-hartzea**, gizarte egitasmoak diseinatzea, eta gizarte zerbitzuak zuzentzea, plangintza egitea eta antolatzea

NOLA EGITEN DU?

- **Erabateko esku-hartzea** egiten du, eta bere abiapuntua gizarte diagnostikoa da
- Pertsonen eta berauen beharrazanen **ikuspegi globala** du
- Pertsonen **gaitasunak eta autonomia bultzatzen ditu, laguntza harreman** baten bidez
- Ezinbestekotzat jotzen ditu pertsonaren **laguntza sareak**: familia, lagunak...
- **Baliabide** pertsonal eta sozialak **mugiarazten ditu**
- **Talde lanean** aritzen da beste profesionalekin
- Esku-hartzerako, plangintza egiten du, eta ondoren emaitzak aztertzen ditu
- ...

HORI GUZTIA, PRESTAKUNTZA AROAN ZEHA
JASOTAKO EZAGUTZAK, GAITASUNAK
ETA TREBETASUNEN BIDEZ

ARGIBIDE GEHIAGO: Titulazioaren liburuxkan, Fakultatearen web orrian (www.gizarte-langintza.ehu.es), edo martxoan UPV/EHUk antolatu ohi duen Ateak Zabaltzeko Egunean.